

VISA ORO (Pertsonal Txartelak)/ORO PRO Istripu Aseguruaren informazio-laburpena

LABORAL Kutxak Seguros Lagun Aro S.A.rekin izenpetutako 11.97.01.000353 zenbakidun istripu-aseguru kolektiboaren polizaren baldintza orokorren eta partikularren laburpena. Baldintza hauek 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera daude indarrean. Laburpen honen helburu bakarra informazioa ematea da, eta edozein auzi edo gatazka argitzeko, Polizaren Baldintza Orokorretan eta Partikularretan adierazitakoa bete beharko da.

Aseguratutako kolektiboa

A) Txartelarekin ordaindutako garraio publikoen istripu-aseguruaren estaldura:

Aseguratutzat hartuko dira garraio publikoan bidaiatzen ari diren pertsona guztiak, garraio publikotzat joz garraio-mota hori egiteko baimen administratiboa duen ibilgailu oro, bai eta alokairuko autoa ere, bidaiaren edo alokairuaren zenbatekoa LABORAL Kutxak jaulkitako Visa Oro Pertsonal/Oro Pro txartelarekin ordaindu bada.

Bidaia bat partzialki ordaindu bada Visa txartelarekin, aurrerago zehaztutako kalte-ordainak kalkulatzeko, aipatutako txartela erabiliz ordaindutako bidaia-txartelaren zenbatekoaren ehunekoarekin bat datorren kapital aseguruaren hainbanakoa hartuko da aintzat.

Txartel bakar batekin ordainduz gero, bederatzi pertsona aseguratuko dira gehienez, titularra barne hartuz.

Alokairuko autoa: kasu horretan aseguratutako pertsona-kopurua baimendutako plaza-kopurura mugatuko da, zazpi gehienez, titularra barne hartuz.

B) Erosketen dirua itzultzeko eta txartelarekin ordaindutako erosketen saldoa ezeztatzeko estaldura:

Aseguratutzat jotzen dira LABORAL Kutxak jaulkitako Visa Oro Pertsonal/Oro Pro txartelaren titularrak, betiere txartela erabili badute erosketen ordainketa egiteko, ezbeharra gertatu aurreko azken 12 hilabeteko epean.

Estalitako arriskua

A) Txartelarekin ordaindutako garraio publikoen istripu-aseguruaren estaldura:

Honako istripu hauen ondoriozko gorputzeko kalteak bermatzen dira:

- Bidaiarien garraio publikoa egiteko baimendutako edozein ibilgailutan bidaiari gisa jasandako istripuak, bai eta garraibidera igotzeko eta jaisteko unean izandakoak edo bidaiatzeko zain egoteko lekuan gertatutakoak ere (geltoki, portu edo aireportuetan).
- Goian adierazitako baimendutako garraio publikoaren irteerako edo itzulerako puntura joateko erabilitako garraio publiko osagarrian gertatutako istripuak. Ondorio hauetarako soilik, garraio publikotzat joko dira alokairuko turismoak.
- Estali egingo dira aseguratutako pertsonak, bidaiari gisa, bidaian zehar baimendutako edozein garraio publikotan egindako ibilbidean gertatutako istripuak, eta ez da nahitaezkoa izango garraio publiko hori txartelarekin ordaintzea, betiere bidaia nagusia, joan-etorria, txartelarekin ordaindu bada eta haren iraupena 30 eguneko baino luzeagoa ez bada.
- Aseguratua bidaia egiteko alokairuko ibilgailu batean bidaiari edo gidari gisa badoa eta autoaren alokairua Visa Oro/Oro Pro txartelarekin ordaindu badu.
- Bermatu egiten dira egiaztatutako eta beharrezko gastuak, garraibidearen bahiketaren ondoriozkoak badira eta laburpen honen Kapital Aseguratuari buruzko atalean adierazitako zenbatekoaren mugaraino.

B) Erosketen dirua itzultzeko eta txartelarekin ordaindutako erosketen saldoa ezeztatzeko estaldura:

Eguneko 24 orduetan zehar gertatutako istripuen ondoriozko gorputzeko kalteak bermatzen dira.

Bermeak

Heriotza: Heriotza bat-batean gertatzen bada edo istripuaren datatik urtebetera, Aseguru Etxeak aseguratutako kapitalaren % 100en ordainketa bermatzen du.

Baliaezintasun Iraunkorra: Jasandako lesioen ondorioz, Aseguratua, osorik eta modu iraunkorrean, edozein lan-mota edo ordaindutako enplegua betetzeko ezindua edo ezgaitua gelditzen denean eta ezintasun iraunkor absolutu atzeraezina istripuaren datatik hurrengo 12 hilabetetan gertatzen denean, Aseguru Etxeak aseguratutako kapitalaren % 100 ordainduko du.

Lesioek jarraian adierazitako kaltea ekarri badute, istripua gertatu eta 100 egunen buruan, Aseguru Etxeak galera hauengatik ordainduko du:

- Bi eskuak, bi oinak edo bi begien ikusmena: aseguratutako kapitalaren % 100.
- Esku bat eta oin bat: aseguratutako kapitalaren % 100.
- Beso bat edo hanka bat: aseguratutako kapitalaren % 50.
- Esku bat edo oin bat, edo begi baten ikusmena: aseguratutako kapitalaren % 50.

Kapital aseguratua

A) Txartelarekin ordaindutako garraio publikoetan gertatutako istripuen aseguruaren estaldura heriotzagatik edo baliaezintasun iraunkorragatik:

Kapitala: 1.000.000 euro pertsonako.

Txartelarekin ordaindu den alokairuko auto baten estaldura, gidari edo bidaiari gisa: 500.000 euro.

Hildakoa 14 urtetik beherakoa bada, kalte-ordaina 6.000 eurokoa izango da soilik eta hiletako gastuen kontzeptuagatik.

Gastuak garraibidearen bahiketagatik: Aseguru Etxeak gehienez ere 6.000 euro arteko kalte-ordaina ordainduko du kasu guztietan.

B) 1.- Txartelarekin ordaindutako erosketen dirua itzultzeko estaldura, heriotzagatik edo baliaezintasun iraunkorragatik:

Titularrak egindako eta LABORAL Kutxaren Visa txartelean zordundutako erosketen zenbatekoaren pareko kapitala, betiere erosketak istripuaren aurreko 12 hilabeteetan egin badira, eta 15.000 euroko gehieneko mugarekin ezbehar bakoitzeko.

B) 2.- Txartelarekin ordaindutako erosketen saldoa bertan behera uzteko estaldura, heriotzagatik:

Aseguratutako txartelarekin egindako ondasun higigarriak eta salgaiak erosteagatik ordaintzeko dagoen saldoaren pareko kapitala, 6.000 euroko gehieneko mugarekin ezbehar bakoitzeko.

Onuradunak

Heriotza gertatuz gero, Aseguratuak espresuki izendatutako onuradunik ez badago, aseguruaren onuraduntzat hartuko dira, lehentasunezko ordenan, hauek: 1. Ezkontidea, legez bananduta ez badago. 2. Seme-alabak. 3. Aseguratuaren gurasoak. 4. Aseguratuaren legezko jaraunslak. Ezintasunaren kasuan, aseguratutako zenbatekoa Aseguratuari berari emango zaio. Ezbeharraren unean, txartelaren titularrak LABORAL Kutxari zenbatekoaren bat zor badio, LABORAL Kutxa izango da lehenengo onuraduna ordaindu gabe dagoen zenbatekoa estali arte.

Adin-muga

A) Txartelarekin ordaindutako garraio publikoen istripu-aseguruaren estaldura:

Aseguratuaren adinak ez du estaldura mugatzen.

B) Erosketen dirua itzultzeko eta txartelarekin ordaindutako erosketen saldoa ezeztatzeko estaldura:

Aseguratuak 70 urte betetzen dituen eguneko zero orduan etengo da estaldura automatikoki.

Esklusioak

Esklusio hauek adierazteko jasotzen dira, eta ez mugatzeko; hortaz, ez dira estaliko ezbehar hauen ondorio zuzena edo zeharkakoa diren gorputzeko kalteak:

- Gerrak, gatazka armatuak eta terrorismoa (Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak eskainitako estaldura izan ezik).
- Bere buruaz beste egitea edo suizidio-saioak.
- Miokardioko infartuak eta garun-hodietako gaitzak.
- Aseguratuak delituzko ekintzetan, dueluetan edo liskarretan parte hartzeagatik sortutako istripuak
- Aseguratuak alkoholaren, drogen eraginpean edo burua galduta egoteagatik izandako istripuak.
- Legez garraio publikoaren sailkapena ez duten aireko garraioetan gertatutako istripuak.

- Jarduera eta/edo kirol arriskutsuak (parakaidismoa, alpinismoa eta espeleologia) egitean eta abentura-kirolak (puentinga, raftinga, arroilen jaitsiera) praktikatzean gertatutako istripuak.
- Espainiaren jurisdikzioko uretatik kanpo egindako nabigazioa, bidaiaren garraio publikoak ez diren ontzietan.
- 25 urtetik beherakoentzat ziklomotorrak edo motozikletak erabiltzea eta gidatzea kasu guztietan, eta 25 urtetik gorakoentzat 250 cm³ baino zilindro-bolumen handiagoko motozikletak erabiltzea eta gidatzea.

Baita FP1101/04 Berr. Istripu kolektiboen Baldintza Orokorretako 4. artikuluan adierazitakoak ere.

Gehieneko kalte-ordaina aseguratutako pertsona bakoitzeko

Visa Oro Pertsonal/Oro Pro txartelaren bikoiztua jaulkitzeak edo LABORAL Kutxak titular beraren izenean beste bat jaulkitzeak ez du nahitaez ekarriko aseguratutako kapitalen metaketa bat, eta kapital horiek ezingo dira izan Bermeak eta Kapitalak atalean ezarritakoak baino handiagoak.

Bidaia-txartel bakoitza txartel bakarrarekin soilik ordaindu ahal izango da, beraz, ezingo dira inola ere bermeak bikoiztu.